

Miren Ugalde ... Trapu Zaharra antzerki taldeko kidea

«Egunerokotari komikotasuna ateratzen diogu»

Trapu Zaharra da taldearen izena eta aspalditik ari da kaleetan beraiek berezi egiten dituen umore eta komikotasuna lantzen. Jaiotan Bergaran izango ditugu Trapu Zaharra taldeko kideak, kale antzerkia gurera ekartzeko prest ...

■ Nortzuek osatzen dute Trapu Zaharra antzerki taldea? Aldaketarik egon da sorreratik hona?

1982. urtean sortu ginen. Urte dexente igaro dira ordutik, eta bilakaera izan dugu. Hasieran bi lagun ziren; Santi —hau oraindik ere taldekoa da— eta Txema. Biak komikoak ziren; beraiek hasi zuten taldea.

Taldearen ardatza beti umorea izan da eta komikotasuna. Hauek bederatzi urtez egon dira elkarrekin; gero, Txemak utzi egin zuen, gidoiak idazteko, eta jende gehiago joan zen sartzen. Normalean, taldea lauzpabost lagunek osatu izan dute ordutik. Dena dela, Trapu Zaharrak berak idazten ditu bere obrak, eta obraren arabera, batzuetan jende gehiago behar izaten dugu.

■ Kalerako lanengatik ezagutzen da gehienbat Trapu Zaharra, baina agertokietarako ere egin dituzue lanak?

Bost lan egin ditugu barnerako, beti komikoak. Ezin gara hortik atera. Behin egin genuen gauza serioagoa bat, eta jendea barre egitera joan zen.

■ Zer da Bergarara ekarriko duzuen Eroak obra?

Sorpresa da. Ezusteko moduan planteatzen dugu. Zerbait esatekotan zera esan ge-



Eroak obra aurkeztuko du Trapu Zaharra antzerki taldeak Bergaran.

nezake: bi pertsonaiaren bizi-tzaren beste ikuspuntu bat da. Bi tipo dira; egun horretan Bergarara iristen dira eta guztia hankaz gora jartzen dute, gauzak ikusteko beste ikuspuntu bat dutelako. Gehiago ez dut esango...

■ Kale animazioa umeekin lotzea oso arrunta da. Zuek egiten duzuen zain ikusleri dago bideratua?

Beno, kalean guztiok gaude. Guk oso argi ikusten dugu gure obrak jende guztiak ikus-

ditzakeela, baina gehienbat jende gazte eta helduari dago zuzendua, ez umeei. Dena dela, jakin egin behar dugu kalean dagoen dena eramaten; kalea hori baita.

■ Nolako da gaur egungo zuen egoera?

Batzuetan pentsatzen dugu denbora beharko genukeela atzerrira joan eta beste lan ildo batzuk ikusteko. Gustura gaude, ideiak izan eta horiek kaleratzeko gogoia dugulako.

■ Orokorrean nola ikusten duzu antzerkia Euskal Herrian?

Nik uste dut Euskal Herrian tradizio bat badagoela, orain dela urte batzuk ez zegoena. Talde onak daude, obra majo batzuk ikusten dira, eta euskal antzerkia, estatu mailan puntan dago, nire ustez. Ikusten dudana da batzuk ongi kokatuta gaudela, baina datozen gazteei aukera gehiago eman behar zaiela. Saio bat badago, hala ere guztiok

jarri beharko genuke ados eta bultzatu egin beharko genuke. Hori herri honen egunerokotasuna da, ezta.

■ Euskaraz egiten den antzerkiari ari gara euskal antzerkiari hitz egiten dugunean?

Ez, guk zirkuitu asko hementik kanpo ditugu, eta obrak egiten ditugunean bai euskaraz bai gaztelaniaz egiten ditugu; joera hori da. Elebitasunak herri txikietara iristeko aukera eman digu.



UR kristaldegia

Kristalak oro har
Ispiluak, beirateak, biselatuak
Isolatzaileak, plastikoak, etab.

Martokua, 1-3 behea - BERGARA - 943 76 54 68 tel.

GOZOTEGIA

Mugica

Espezialitatea: Errellenoak eta Tostoiak

Artekale, 3

Tf.: 943 76 10 34

BERGARA

Jardun

JO TA SUA EGUN OSUA

TA BA JARDUN!!